

## **Umiltasunaren miraila**

Umila: hitz hau arras ongi joanki zaio Erramun Bachoc bidelagunari, horrelakoa baitzen.

Xinaurriaren pare, ixil-ixila lanean eta lanean. Aldiz, mintzatu behar zelarik, beti hor zen gertakarien araberako hitz xuxenen atzemaiteko, diskurtsoa ezinago hobeki arrazoinatuz, eta ikerlarien gogoetetan oinarrituz.

Zenbat aldiz ez ditugu erreferentzia gisa, Txepetx, Fishman, Bourhis edo oraino William Mackey bezalako enizenak Erramunen ahotik entzun, edozein hizkuntza edo kultura ekimen behar zelarik sostengatu, batzuetan arraileria apur batekin!

Bainan sozio-linguistikarako jakinduriarekin batera, Erramun Bachoc gogoetari lotzen zituen egunero euskararen eta euskal kulturaren hazteko egiten ziren ekintza konkretuak.

Euskal kultur erakundeko lehendakari gisa, bertzeak bertze, kartsuki lan egin du, beti bere tokian egonez, bainan behar-ordu guztietan hor izanez gure laguntzeko, gure babesteko, ekaitz larrienen artetik, baikor izateko.

Erramun bihotz handiko gizona zen: Euskal Kultur Erakundeko lehendakaritzagoa utzi ondotik ere, beti gure ondoan sosegu genuen, nola euskararen gaiez aholkatzeko, hala edozein eskukaldiren emateko, orenak kontatu gabe.

Egiazko herri-kulturaren militantea zinen!

Hitz labur bezain samurrez, eskertu nahi zaitugu, euskararen eta euskal kulturaren alde egin duzun lan paregabearentzat.

*Pizkundearen* denboretan ezagutu nuen, duela berrogei urte baino gehiago. Zenbat eta zenbat asteburu ez ditugu ere harekin iragan, Ikasek ekoiztu *Euskaraz bizi* metodoarentzat esketxen filmatzen, beti xede berarekin: gazteeri euskararen transmisioaren segurtatzea, orduko era modernoan.

Geroztik, zenbat bide ez da urraturik izan, Erramun Bachoc eta bera bezalakoeri esker, oraino anitz egiteko baldin bada ere, oroz gainera euskara gizartera dadin eta behar duen ezagupen ofiziala behin betikoz erdiets dezan. Hori zen Erramunen eguneroko erronka eta esperantza!

Euskal kultur erakundeko lehendakaritza utzi zuelarik 2005ean, ohorezko makila bat eskaini genion, erranaldi hau grabaturik: *“Erramun Bachoc, Euskaldun suharra, langile zilarra, geroan baikorra ,,*

Ba ote da Erramunen izaitea hobeki irudikatzen duenik? Ez dut uste.

Milesker bihotzez Erramun eta ez adiorik.

Pantxoa ETCHEGOIN

2024-06-07an